Araugintza
I. ikastaroa



1. saioa
Ortografia

Erantzun orriak

EUSKARAREN IRAKASKUNTZARAKO
BALIABIDE ZENTROA

Mokarte parkea z.g.
31620 Uharte. Nafarroa
948 361093 Fax: 948 361092

Aurkibidea

Ortografia. Ariketa orokorra 3
ARAUAK 5
Ortografia, nahas-mahas 5
Zenbaki kardinalak lantzeko, besteak beste 6
Matematika eragiketak 9
Eman zenbakiz letraz dauden adierazpen hauek 10
Zenbakiak zifraz eta letraz 11
Zenbakiak: txekeak 12
-ain, -zio 13
Galdetzailea + nahi 13
Nola idatzi hitzak lerroz aldatzean? 14
Euskal alfabetoa 15
Hiztegi Batuan zer izen ematen zaie elementu hauei? 15
OHIKO AKATSAK 16
Letra xehez idazten diren zenbait izen berezi 16
Kantitateak eta produktua 17
Salneurria 17
Tanteoa 18
Milatik gorako zenbakiak 18
Erdia / erdiak 19

Ortografia. Ariketa orokorra

1.1. **x)** Bileran geundela, bat-batean altxatu eta alde egin zuen deus ere erran gabe.

b) Bileran geundela, bapatean altxatu eta alde egin zuen deus ere erran gabe.

c) Bileran geundela, bat batean altxatu eta alde egin zuen deus ere erran gabe.

1.2. a) Zuk, behinik-behin, badakizu nola jokatu behar den.

b) Zuk, behinipein, badakizu nola jokatu behar den.

x) Zuk, behinik behin, badakizu nola jokatu behar den.

1.3. a) Batik-bat zuregatik egin dut honainoko bidaia luzea.

b) Batipat zuregatik egin dut honainoko bidaia luzea.

x) Batik bat zuregatik egin dut honainoko bidaia luzea.

2. a) Ez dut uste garaiz iritsiko garenik, hagitz lanpeturik bait gabiltza.

b) Ez dut uste garaiz iritsiko garenik, hagitz lanpeturik baitgabiltza.

c) Ez dut uste garaiz iritsiko garenik, hagitz lanpeturik baigabiltza.

x) Ez dut uste garaiz iritsiko garenik, hagitz lanpeturik baikabiltza.

3. a) Ikastetxearen aitzinkaldean (aurrekaldean) dago polikiroldegia.

x) Ikastetxearen aitzinaldean (aurrealdean) dago polikiroldegia.

c) Ikastetxearen aitzinekoaldean (aurrekoaldean) dago polikiroldegia.

4. a) Neretzat erosi al duzue liburu hau?

b) Neri eman behar didazue dirua.

x) Joanen zarete nirekin?

5. a) Zuen zai zegoen asper-asper eginda.

x) Zuen zain zegoen asper-asper eginda.

6. a) Hama bortz lagun baino ez dira etorri ikastarora.

b) Berrogei eta bortz lagun baino ez dira etorri ikastarora.

x) Berrogeita bortz lagun besterik ez da etorri ikastarora.

d) Berrogei ta bortz lagun besterik ez da etorri ikastarora.

7. **x)** Administrazioaren aurrean ezer gutxi egin dezakegu.

b) Administraziñoaren aurrean ezer gutxi egin dezakegu.

c) Administrazionearen aurrean ezer gutxi egin dezakegu.

c) Administrazionearen aurrean ezer gutxi egin dezakegu.

8. **x)** Nonahi aurkitzen ahal da zurea bezalako autorik**.**

b) Nonnahiaurkitzen ahal da zurea bezalako autorik.

c) Non nahi aurkitzen ahal da zurea bezalako autorik.

9. a) Ez dakit noiz etorriko diren, eta hementxe naukate zain larunbat-etik.

x) Ez dakit noiz etorriko diren, eta hementxe naukate zain larunbate-tik.

10. **x)** Hauxe da X letraren euskal izena: Ixa.

b) Hauxe da *X* letraren euskal izena: *Ekix.*

c) Hauxe da *X* letraren euskal izena: *Ekis.*

ARAUAK

Ortografia, nahas-mahas

1. Bat-batean hil omen zen gajoa.
2. ~~Bapateko~~ kontua izan da, antza. Bat-bateko
3. Neuk, ~~behinik-behin,~~ ez dut deus ere erranen. behinik behin
4. Lehen deitura, behinik behin, aitarena dauka.
5. Perretxiko horiek Urbasa aldean aurkitzen dira batik bat.
6. Azaroaren 21eko Foru Agindua, zeinaren bidez onesten ~~bait da~~ EGA berriaren egitura, ... baita
7. Ikastetxearen ~~aurrekaldeko~~ aparkalekuan daukat autoa. Aurrealdeko / aurreko aldeko
8. Zubi zaharraren ~~atzekaldean~~ egoten dira eguzkitan. Atzealdean / atzeko aldean
9. ~~Neretzako~~ oparia armairuaren ~~goikaldean~~ dago. Niretzako, goialdean / goiko aldean
10. ~~Nere ustez~~, hori ez da, inondik inora ere, jokabide zuzena. Nire ustez
11. ~~Berrogeitabost~~ lagun inguru bildu bide ziren atarian. Berrogeita bost
12. ~~Bi mila berrehun~~ ikaslek hartu zuten parte ~~manifestazioian~~. Bi mila eta berrehun, manifestazioan
13. ~~Hogeitalau~~ bidarirentzako lekua dauka autobus honek. Hogeita lau
14. ~~Komunikazinoa~~ ezinbestekoa da elkar ulertuko badugu. Komunikazioa
15. ~~Kutxazai~~ automatiko ~~batetan~~ aterako dugu dirua. Kutxazain, batean
16. Frantziara joan eta nonahi topa daiteke garaje on bat.
17. ~~Nor nahik~~ egin dezake ~~erreklamazinoa~~. Nornahik, erreklamazioa
18. Asteburu ~~batzutan~~ irekita egoten da, baina ez ~~zeinnahi~~ ordutan. Batzuetan, zeinahi / zein-nahi

Zenbaki kardinalak lantzeko, besteak beste

Behin, Europako hiri handi batean, olerkari ***pobre*** bat bizi zen. Olerkari honek, ehun urteak bete ez zituen arte, ez zuen inoiz hilen ez zelako ***esperantza*** galdu. Baina honek axola gutxi digu egun.

Olerkaria lantegi bateko administraria zen, **15** (hamabost) urterekin sartu zen han lanean, eta **85** (laurogeita bost) urte egin arte ez zuten jubilatu. Bulego ***mehar*** eta ilun batean ***igaro*** zuen bere bizitza luzea, eta baita bere bertso ederrak hantxe moldatu ere.

Ez zeukan izenik, edo ez daki inork izenik zeukanik, eta soldata kobratzen zuenean, sinadura beharrean, zentzu gabeko lerro bihurri batzuk ipini ohi zituen. Inori ez zitzaion ***inoiz*** axola izan. Guri ere ez, gaur egunean, bere bertsorik gordetzen ez delako.

Gaztetan asko irakurri zuen, eta gizon denboran ***asko*** idatzi. Bulego zuloan eman zituen ***aurreneko*** **2** (bi) urteetan ez zen bere ***zortearekin*** konforme, eta ***apustua*** egin zion bere buruari: kontu-liburuetan idatziriko zenbaki bakoitzagatik, bertso baterako puntu **1** (bat) moldatuko zuela. Minutu bakoitzean numero bi idazten zituen. Puntu 2, ***beraz***, bere paperetan. ***Orduak*** **60** (hirurogei/hiruretan hogei) minutu dituenez, **120** (ehun eta hogei) puntu idazten zituen ordu bakoitzeko, eta egunean **1.440** (mila laurehun eta berrogei) puntu. Urtean **300** (hirurehun) egunetan egiten zuenez lan, **432.000** (laurehun eta hogeita hamabi mila) puntu ***idazten*** zituen. Urteak joan eta urteak etorri, **50** (berrogeita hamar) urteak bete zituen arte idazten jarraitu zuen. Honela, bizitzan zehar **14.256.000** (hamalau milioi, berrehun eta berrogeita hamasei mila) puntu idatzi zituen.

Igande eta jaiegunetan bere bertsoak osatzen eta atontzen zituen. Astean zehar eginiko puntu guztiak launaka biltzen zituen bertsoetan, bertsoak ehunaka kantuetan, eta kantuak hamarnako liburuetan. Honela, bere bizitza erdian **3.564** (hiru mila bostehun eta hirurogeita lau) liburu idatzi zituen.

Liburuak idazteko papera lantokiko horniduratik hartzen zuen. Paper lodia zen eta orri bakoitzak erreal bat balio zuen. Paper bakoitzean **5** (bost/bortz) bertso kabitzen zitzaizkion. Dotoreago gelditzeko beste paper batzuk ere tartekatu zituen, apaindura eta koloreekin. Honela, liburu bakoitzak **250** (berrehun eta berrogeita hamar) orri zituen. Kontulari olerkariak idazten zuen liburu bakoitza **100** (ehun) pezeta kostatzen zitzaion lantegiari, guztira **356.000** (hirurehun eta berrogeita hamasei mila).

Hilean, **3.000** (hiru mila) pezeta irabazten zituen eta bulegoan ematen zuen denboraren erdia bertsoak osatzen ematen zuenez, bere liburuak **594.000** (bostehun eta laurogeita hamalau mila) pezeta kostatu zitzaizkion fabrikari; eta paperarekin, **950.400** (bederatziehun eta berrogeita hamar mila eta laurehun) pezeta. Dirutza hori ***apurka-apurka ostu*** beharrean, dena batera harrapatu izan balu, ***automobil*** bat eta

etxe bat erosteko ***beste*** edukiko zukeen. Modu horretan ez zuen ***lan*** egiteko premiarik izango.

Liburuak gela aparte batean gordetzen zituen. **50** (berrogeita hamar) urte bete zituenean, sartu zen gela hartan azken liburua gordetzera. Eta ***izuturik*** geratu zen, liburu berria non ipinirik ez zeukala ikusi zuenean.

Bere ***golkorako*** pentsatu zuen: -Gehiegi idatzi dut. Hainbeste bertsoren artean, ez ote da baliorik gabeko gauza asko egongo? Eta bere bihotzean ***duda*** sakona piztu zitzaion. Duda horren aurkako borrokan eman zuen hurrengo urtea, eta gauza bat ***erabaki*** zuen: Bere liburu guztiekin beste handiago eta luzeago bat egingo zuela, alegia. Liburuak launaka hartzen zituen, eta soberan zeuden bertsoak kendurik, laurekin berria osatzen zuen. Modu horretan, **891** (zortziehun eta laurogeita hamaika) liburu geratu zitzaizkion. Hauekin beste hainbeste egin zuen eta ***hondarrean*** **223** (berrehun eta hogeita hiru) gelditu.

Hauek ***atzera*** bildurik, hasieran **56** (berrogeita hamasei), gero **14** (hamalau), eta azkenean **3** (hiru) osatu zituen. Hiru hauekin azkenean bakarra egin zuen. Hau egiten, **40** (berrogei) urte ***bederen*** behar izan zituen; honela gutxi gorabehera **12** (hamabi) egun eman zuen laburkuntza bakoitzean. **3.564** (hiru mila, bostehun eta hirurogeita lau) liburuetatik bat bakarrik ***utzi*** zuen, eta **14.256.000** (hamalau milioi, berrehun eta berrogeita hamasei mila) puntuetatik **6** (sei) puntuko **7.263** (zazpi mila berrehun eta hirurogeita hiru) bertso, guztira **43.578** (berrogeita hiru mila, bostehun eta hirurogeita hemezortzi) puntu. Guztira **14.212.422** (hamalau milioi, berrehun eta hamabi mila, laurehun eta hogeita bi) puntu ezabatu zituen**, 40** (berrogei) urtean.

Baina **10** (hamar) urte zeuzkan oraindik jarduteko, eta aurrera joateko erabakia hartu zuen. Ederki asko zekien hainbeste jolasetan biziaren arrazoia aurkitua zuela, eta, orain, liburu hartan bere begien aurrean zeukala bertso artean ezkutaturik.

Bere bizitzako azken 10 urteetan, puntuak ezabatzen jardun zuen. Duda sakonak egiten zitzaizkion puntu bakoitza borratzeko, baina gauza guztiak ondo aztertu eta gero, ez zuen batere ***urrikalmendurik*** izaten. Eta bat utzirik, beste guztiak borratu egin zituen azkenean. Hauxe izan zen gelditu zena:

"Gizakiaren gorputza
buztinezkoa da".

Biharamunean hil egin zen.

Olerkari guztiak bezala, infernura joan zen. Han deabru batek hartu zizkion kontuak. Demonioak esan zuen bere golkorako:

-***Etsaminatu*** dezadan arima hau. Ea nola erretzen dugun: oliozko sutan ala egurrezko sutan.

Eta honela mintzatu zitzaion olerkariari:

- Urlia, ehun urte bizi zara. Zer izan zara?

- Olerkaria.

- Ea zer probetxu atera duzun zure bizitzatik. Zer idatzi duzu? Erakutsi!

- Bertso hau.

- Eta bertso hau idazten ehun urte behar izan dituzu? Hogei letra dauzka. Letra bakoitza idaztea bost urte kostatu zaizu. Hainbeste zorakeria izan ez bazenu buruan zure ***haurtzaroan***, jakingo zenukeen hori; kristau dotrina irakurriko baitzenuen. Orain, pospolu baten garretan erreko zara eternitate guztian. Amen.

Gabriel Aresti (moldatua)

Sinominoak:

Pobre: behartsu, txiro	**Automobil**: auto, beribil
Esperantza: itxaropen, peskiza (ipar.)	**Beste**: adina, bezainbeste, bezainbat
Mehar: estu, hertsi	**Lan**: zeregin, eginbehar, eginkizun
Inoiz ez: sekula ez, behin ere ez, inoiz ere ez	**Izuturik**: ikaraturik, beldurturik
Gaztetan: gazte denboran, nerabe zenean	**Golkorako**: baitarako
Asko: franko, anitz, ugari	**Duda**: zalantza, duda-muda, ezbaia
Aurreneko: hasierako, lehenbiziko, lehendabiziko, estreinako	**Erabaki**: ebatzi, erabakia hartu
Zortearekin: zoriarekin, benturarekin, suertearekin	**Hondarrean:** azkenean, amaieran, bukaeran
Apustua: jokoa, trabesa, postura	**Atzera**: berriro, berriz
Beraz: hortaz, bada, horrenbestez	**Bederen**: gutxienez, behintzat, behinik behin
Orduak: orenak	Utzi: laga
Idazten: izkiriatzen, apuntatzen, eskribatzen	**Urrikalmendurik:** errukirik, gupidarik, urrikimendurik
Apurka-apurka: poliki-poliki, mantso-mantso, geldi-geldi	Etsaminatu: aztertu
Ostu: lapurtu, ebatsi, hartu	**Haurtzaro:** umezaro, haur-denbora, haurtasun, seintzaro

Matematika eragiketak

a) 100 x 25 = 2500; 9 -5 = 4; 250- 4 = 246
ehun bider hogeita bost, berdin bi mila eta bostehun
bederatzi ken bost, berdin lau
berrehun eta berrogeita hamar ken lau, berdin berrehun eta berrogeita sei

b) 2.100 + 10 = 2.110; 110 x 6 = 660
bi mila eta ehun gehi hamar, berdin bi mila ehun eta hamar
ehun eta hamar bider sei, berdin seiehun eta hirurogei

c) 10 + 8 = 18; 50 x 18 = 900; 900 + 75 + 4 = 979
hamar gehi zortzi, berdin hemezortzi
berrogeita hamar bider hemezortzi, berdin bederatziehun
bederatziehun gehi hirurogeita hamabost gehi lau, berdin bederatziehun eta hirurogeita hemeretzi

d) 10 -7 = 3; 100 + 3 = 103; 75 : 25 = 3; 103 x 3 = 309
hamar ken zazpi, berdin hiru
ehun gehi hiru, berdin ehun eta hiru
hirurogeita hamabost zati hogeita bost, berdin hiru
ehun eta hiru bider hiru, berdin hirurehun eta bederatzi

e) $\mathbf{5^2 = 25}$ bost ber bi, berdin hogeita bost
$\mathbf{5 \cdot 10^3 = 5000}$ bost bider hamar ber hiru, berdin bost mila

f) $\sqrt[2]{16} = 4$ bi-erro hamasei, berdin lau / erro karratu hamasei, berdin lau / erro hamasei, berdin lau

g) $\sqrt[3]{27} = 3$ hiru-erro hogeita zazpi, berdin hiru / erro kubiko hogeita zazpi, berdin hiru

Eman zenbakiz letraz dauden adierazpen hauek

- ***Irailaren hamaikan*** gertatu zen Dorre Bikien aurkako erasoa.

  Irailaren 11n gertatu zen Dorre Bikien aurkako erasoa.

- Kristo aurreko bigarren mendetik aurrera.

  K. a. II. mendetik aurrera.

- ***Isabel Lehena*** Ingalaterrakoa ***Enrike Zortzigarrenaren*** alaba zen.

  Isabel I.a Ingalaterrakoa Enrike VIII.aren alaba zen.

- ***Retegi Bigarrenak*** irabazi zuen ***laurogeita seiko*** pilota txapelketa.

  Retegi II.ak irabazi zuen 86ko pilota txapelketa.

- Ikasleen ***ehuneko zazpi*** Ikerren alde daude.

  Ikasleen % 7 Ikerren alde daude.

- Batez beste ***sei eta erdi*** atera behar da biologia azterketa gainditzeko.

  Batez beste 6,5 atera behar da biologia azterketa gainditzeko.

Zenbakiak zifraz eta letraz

22,13	Hogeita bi koma hamahiru
77,886	Hirurogeita hamazazpi koma zortziehun eta laurogeita sei
2/5	Bi bosten
% 51	Ehuneko berrogeita hamaika
22-18 amaitu zen…	Hogeita bi eta hemezortzi...
0,75	Zero koma hirurogeita hamabost
5/7	Bost zazpiren
3-1 irabazi dio…	Hiru eta bat...
0-0 gelditu…	Hutsean / huts eta huts
50. urteurrena…	Berrogeita hamargarren...
80ko hamarkadan…	Laurogeiko...
Ligako 9. jardunaldian....	...bederatzigarren...
Donostiako *XX.* Jazzaldia	...hogeigarren...
XXI. mendeko…	Hogeita batgarren...
1/2	Bat biren / erdia
45. orrialdean …	Berrogeita bosgarren...
7 + 8 = 15	Zazpi gehi zortzi, berdin hamabost
5 x 60 = 300	Bost bider sei, berdin hogeita hamar
10.555 – 1.500 = 9.055	Hamar mila bostehun eta berrogeita hamabost ken mila eta bostehun, berdin bederatzi mila eta berrogeita bost
600 : 30 = 20	seiehun zati hogeita hamar, berdin hogei
√9 = 3	Erro bederatzi, berdin hiru
$3^2 = 9$	Hiru ber bi, berdin bederatzi

Zenbakiak: txekeak

EURO ..# 3200 #... €
Txeke honen truke, ordaindu .....Eramailea.....(r)i

Zenbat euro .....Hiru mila eta berrehun .....

.....Tutera, 2004ko otsailaren 23a..... Titularraren sinadura

EURO # 11.318 #.... €

Txeke honen truke, ordaindu ...……Mirari Agirre.....(r)i

Zenbat euro .....Hamaika mila hirurehun eta hemezortzi.....

.....Gares, 2005eko urtarrilaren 30a..... Titularraren sinadura

EUR0 ……# 636,67#….€

Txeke honen truke, ordaindu .....Xabier Zubeldia.....(r)i

Zenbat euro .....Seiehun eta hogeita hamasei koma hirurogeita zazpi.....

.....Elizondo, 2006ko apirilaren 14a..... Titularraren sinadura

EUR0 ……#25.445,50#….€

Txeke honen truke, ordaindu .....Laura Sotes.....(r)i

Zenbat euro ..hogeita bost mila laurehun eta berrogeita bost koma berrogeita hamar

.....Arruazu, 2007ko martxoaren 5a..... Titularraren sinadura

EUR0 ...# 19.003,05 #..... €

Txeke honen truke, ordaindu .....Edorta Fernandez.....(r)i

Zenbat euro .....Hemeretzi mila eta hiru koma bost.....
....Berriozar, 2004ko abenduaren 21a..... Titularraren sinadura

-ain, -zio

1.	dohain	aurrekoalde	usai
2.	haurtzai	goialde	beheko alde
3.	barren-alde	atezain	diruzai
4.	atzealde	atzekalde	atzeko alde
5.	gibelalde	itzai	itzain
6.	barrukalde	gain-alde	kanpo alde
7.	aurrealde	aurrekoalde	aurre-alde
8.	usain	gotzai	azpikalde

Galdetzailea + nahi

1. Zein da forma zuzena?
   a) nonnahi
   b) zer-nahi
   x) nolanahi

2. Zein da okerra?
   a) zenbat-nahi
   b) nondik-nahi
   x) nola-nahi

3. Zein da zuzena?
   a) nola nahi
   b) zer nahi
   x) zeinahi

4. Zein da zuzena?
   a) nor nahi
   x) zein-nahi
   c) nondik nahi

Nola idatzi hitzak lerroz aldatzean?

1	a	hi	tu	a
2	lei	a		
3	er	na	ri	a
4	kre	sa	la	
5	jo	ri	a	
6	a	na	ba	sa
7	xa	hu	tu	
8	be	kai	tza	
9	sai	a		
10	la	mi	a	
11	mus	ke	rra	
12	ur	li	a	

Indar gabe, lur jota geratu	**ahitu**
Tenperatura ura izozteko puntutik beherakoa deneko giroa	**leia**
Abere ernaldua	**ernaria**
Itsasoko ur gazia	**kresala**
Ugaritasun handia duena	**joria**
Nahaste-borrastea	**anabasa**
Neurri gabe gastatu	**xahutu**
Besteren onagatik tristura edo min hartzea	**bekaitza**
Hildako animalien okela jaten duen hegazti harraparia	**saia**
Euskal mitologian emakumezko pertsonaia	**lamia**
Kolore berdeko animalia narrastia	**muskerra**
Izenik aipatu gabe, hirugarren pertsona bat izendatzeko modua	**urlia**

1	be	saul	ki			
2	sai	hes	ki			
3	be	kaiz	ke	ri	a	
4	ai	tza	ki	a		

Euskal alfabetoa

LETRA	IZENA	LETRA	IZENA	LETRA	IZENA
a	a	j	jota	r	erre
b	be	k	ka	s	ese
c	ze	l	ele	t	te
d	de	m	eme	u	u
e	e	n	ene	v	uve
f	efe	ñ	eñe	w	uve bikoitza
g	ge	o	o	x	ixa
h	hatxe	p	pe	y	i grekoa
i	i	q	ku	z	zeta

Hiztegi Batuan zer izen ematen zaie elementu hauei?

( )	PARENTESIAK
.	PUNTU
,	KOMA, kakotx h. koma
?	GALDERA(-)MARKA, galdeikur* e. galdera(-)marka
!	HARRIDURA(-)MARKA
“ “	KOMATXOAK
A, B, C, D, E, F, G...	MAIUSKULAK LETRA LARRIAK
a, b, c, d, e, f, g, h...	MINUSKULAK LETRA XEHEAK
A letratik Z letrara	ALFABETOA, abede* e. alfabeto, abeze 1* e. alfabeto
@	A BILDUA

OHIKO AKATSAK

Letra xehez idazten diren zenbait izen berezi

1. Aukeratu zuzena:

   a) Heldu den asteazkenean, Ekainak 29, hasiko dira jaiak.

   b) Heldu den Asteazkenean, Ekainak 29, hasiko dira jaiak.

   c) Heldu den Asteazkenean, ekainak 29, hasiko dira jaiak.

   x) Heldu den asteazkenean, ekainak 29, hasiko dira jaiak**.**

2. Aukeratu zuzena:

   a) San Tomas eguna Neguan izaten da, Abenduaren 21ean.

   b) San Tomas eguna neguan izaten da, Abenduaren 21ean.

   x) San Tomas eguna neguan izaten da, abenduaren 21ean.

   d) San Tomas eguna Neguan izaten da, abenduaren 21ean.

3. Aukeratu zuzena:

   a) Etzi, Hilak 23, hasiko da Euskaltzaindiaren Biltzarra.

   b) Etzi, Martxoak 23, hasiko da Euskaltzaindiaren Biltzarra.

   x) Etzi, martxoak 23, hasiko da Euskaltzaindiaren Biltzarra.

   d) Euskaltzaindiaren Biltzarra Martxoaren 23an hasiko da, hau da, Etzi.

Itzuli

1. Mi hermano se casará en primavera, el día 25 de mayo, sábado.
   Nire anaia udaberrian ezkonduko da, maiatzaren 25ean, larunbata / -ean / -arekin.
2. El curso comenzará el 12 de septiembre.
   Ikasturtea irailaren 12an hasiko da.
3. El cantante y poeta Xabier Lete nació el 5 de abril de 1944.
   Xabier Lete abeslari eta olerkaria 1944ko apirilaren 5ean jaio zen.

Kantitateak eta produktua

Itzuli

1. Compraremos un kilo de manzanas, dos litros de aceite, tres cajas de leche y dos docenas de huevos.
   Kilo bat sagar, bi litro olio, hiru kaxa esne eta bi dozena arrautza erosiko ditugu.
2. Un kilo de melocotón es más caro que dos kilos de pera.
   Kilo bat muxika bi kilo madari baino garestiagoa da.
3. Kilo y medio de azúcar es suficiente para hacer este postre.
   Kilo eta erdi azukre nahikoa da postre hau egiteko.

Salneurria

Itzuli

1. Hemos comprado todo por 25 euros.
   25 eurotan / 25 euroan / 25 euroren truke erosi dugu dena.
2. Te lo daré por seis euros.
   Sei euroan / Sei eurotan / Sei euroren truke
3. Dos céntimos por fotocopia no me parece nada caro.
   Bi zentimo fotokopiako / Bi zentimo fotokopia bakoitzeko ez zait batere garestia iruditzen.

Tanteoa

A:

1. Les hemos ganado 1-3.
   1 eta 3 irabazi diegu.
2. Estamos a tres.
   Hiruna / Hiru eta hiru gaude.
3. No hubo goles. Quedaron empatados a cero.
   Ez zen golik izan. Hutsean / huts eta huts gelditu ziren.

B.:

1. 22-18 amaitu zen pilota partida:
   Hogeita bi eta hamazortzi amaitu zen pilota partida.
2. 3-1 irabazi dio Osasunak Realari:
   Hiru eta bat irabazi dio Osasunak Realari.
3. 0-0 gelditu dira bi taldeak:
   Zero eta zero / huts eta huts / hutsean gelditu dira bi taldeak.

Milatik gorako zenbakiak

1. Aukeratu zuzena

   a) Mila berrehun euro balio omen du.

   x) Mila eta berrehun euro balio omen du.

2. Nola irakurri behar da hau: 2007ko azterketak.

   a) Bi mila zazpiko azterketak.

   x) Bi mila eta zazpiko azterketak.

3. Zenbat da hiru mila gehi hamabi?

   a) Hiru mila hamabi.

   x) Hiru mila eta hamabi.

Erdia / erdiak

Itzuli

1. La mitad de los libros están rotos.

   Liburu erdiak / liburuen erdiak hautsita daude.

2. Se han comido la mitad de la tarta.

   Tarta erdia / tartaren erdia jan dute.

3. A que la mitad de los ejercicios están mal!

   Baietz gaizki egon ariketa erdiak / ariketen erdiak!